


Año LIV. urtea
133 - 2022
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Erreseina.

*Euskal literatura itzuliaren
egiturak eta islak
(1975-2015)*

Ane Irizar Melero

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIV. urtea - N.º 133. zk. - 2022

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: proposamenen ebaluazioa Ander Egurtzegi	9
Paul Broca, garunetik hizkuntzara euskararen bideetatik Joanes Atxa Olaiz	37
Oltzako aldaeraren inguruan (2 – Ihabarko azpialdaera) Koldo Artola	61
Irudikapenetik esperientziara: euskal literaturaren ikerketa feministaren hastapenak XX. mendearen bukaeran Maite Luengo Aguirre	115
Altsasuko hizkuntza-paisaiaren azterketa euskararen biziberritzearen testuinguruan: merkataritzako esparrua Idoia Granizo Uribarrena	131
Euskal doinuaren ulermena: Markinako galderak eta baieztapenak Izaro Bedialauneta Txurruka, Jennifer Zhang, José Ignacio Hualde	159
Pertsona murriztapenak ditu egitura inpertsonalak: euskararen kasua Ane Odria, Ane Berro, Beatriz Fernández	191

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

<i>Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)</i> Ane Irizar Melero	223
---	-----

VARIA

Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak) Ekaitz Santazilia	229
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	259



Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)

(Iker, 38)

Miren Ibarluzea Santisteban. 2021.

Euskaltzaindia

198 or.

ISBN: 978-84-121889-2-9

Erreseina/Reseña/Review:

Ane Irizar Melero

Universidad Complutense de Madrid

airizar@ucm.es

<https://orcid.org/0000-0001-8293-8980>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv133.8>

Iker bildumaren 38. zenbakian argitaratu du Euskaltzaindiak *Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak (1975-2015)* liburua, Miren Ibarluzeari doktore-titulua, doktorego-sari berezia eta 2018ko Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena VI. saria ekarri zizkion doktorego-tesiaren emaitza.

Izenburuak iradokitzen duen legez, euskal literatura itzuliak azken berrogei urte inguruan egindako ibilbidearen errepasoa eskaintzen digu autoreak, itzulpenaren ikuspegi soziologikotik abiatuta. Hots, «itzulpengintzaren eraginen eta horiei buruzko go-goeten bilketa eta bilakaeraren interpretazioa» zuen jomuga Ibarluzeak (3. or.)¹.

Erreseina hau egiteko, liburuaren egiturari berari jarraituko diogu. Mari Jose Olaziregiren eta Ibarluzearen hitzaurre banak (1. eta 2. atalak) abiatzen dute liburua, eta jarraian datorren hirugarren atalari helduko diogu guk lehenengo. «Itzulpen eremua aztertzeke oinarriak: egiturak, dinamikak eta irudikatzeak» izeneko kapitulu (7.-35. or.), lanaren oinarri teorikoa finkatu du Ibarluzeak. Itzulpena bere testuingurutik banatu ezin daitekeen jardura gisa ulertzen hasi dira itzulpen-ikasketak azken hamarkadetan, eta soziologiak testuinguru horiek ulertzeke tresna gisa duen balioa azpimarratu du Ibarluzeak. Itzulpengintzaren soziologiaren arloan egindako ikerketek bezalaxe (8.-9. or.), lan honek ere erabiltzen ditu Pierre Bourdieu soziologoaren «eremu», «habitus» eta «kapital» kontzeptuak. Itzulpen-ikasketetan hain finkatuta dagoen polisistemen teoria ordeztu baino, itzulpenaren soziologia horrek utzitako «hutsuneak betetzera» datorrela proposatu du autoreak (8. or.) (cf. Even-Zohar, 2010; Munday, 2008). Even-Zoharrek proposatutako sistemen kasuan bezala, eremuen mugetan eta barnean borrokak gertatzen dira, eta eremuak berdefinitzera eta eremu eta barne-eremu berriak sortzera eraman dezake horrek. Sortutako eremu berriek, autonomia lortzeko, zenbait urrats eman behar dituzte, Bourdieuk (1984) proposatu zituenak eta Ibarluzeak honela jaso dituenak: «a) gizarte-aniztasunarekin batera kontsumitzaile potentzialak handit[zea]; b) produktu sinbolikoen sortzaile eta

1 Besterik adierazi ezean, erreseinaren gai den liburuari egokituko zaizkio orrialde-zenbakiak.

merkatarien kopurua handituta independentzia ekonomikoa lort[zea]; eta c) kultur legitimazioa lortzeko lehian, kontsakrazio-agentziak (akademiak, azokak, difusio-erakundeak...) dibertsifikat[zea]» (23. or.).

Irizpide horiek baliatuz, euskal literatura itzulia barne-eremu gisa definitzeari eskaini dio autoreak «Euskal literatura itzulia barne-eremu bat da: definizioa eta abiapuntua» izeneko laugarren atala (37.-43. or.). Aurreko kapituluko teoria oinarri, eta beste eremu batzuen eraginpean dagoen aldetik, beraz, honela definitu du Ibarluzeak euskal literatura itzuliaren eremua: «euskal literatura itzulia autonomia erlatiboko barne-eremu bat da, euskal itzulpen-eremuaren eta literatur eremuaren barruan koka daitekeena» (39. or.). Bertan sartuko lirateke, halaber, hala beste hizkuntza batzuetatik euskarara eta euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak, nola euskaratik euskarara egindako itzulpen interdialektalak.

(Barne-)eremuen sorrera eta bilakaerak progresiboak dira. Euskal literatura itzulia barne-eremu gisa finkatu ondoren, horren autonomizazio-prozesuaren ibilbideari errepaso egin dio «Euskal literatura itzulia: (barne-)eremu baten bilakabidea» deituriko kapituluan (45.-166. or.). Atal honetan topatuko dugu Ibarluzearen ikerketaren muina, hain zuzen ere euskal literatura itzuliaren bilakaeraren analisi osoa eta ederki egituratua, irakurleari eremuaren garapenaren kronologia erraztasunez barneratzeko aukera ematen diona.

1975 eta 2015 arteko berrogei urteetan euskal literatura itzuliak bere autonomizazioarako bidean emandako pausoei begiratu die, beraz, liburuaren bosgarren atalak. Horretarako, prozesua lau fasetan bereizi du Ibarluzeak. Hego Euskal Herriko demokraziaren hasierarekin eta horren ondorio izan ziren euskararen normalizazioarako legeak onartzearekin lotu du autonomizazio-bidearen hasiera (1975-1985), horrekin batera egin zutelako gora euskarazko testuak eskaintzeko beharrak eta, hortaz, itzulpen-eskariak. Bigarren fasea (1985-1990) itzultzaile profesionalek kolektibo gisa kontzientzia hartzeak markatzen du. Horren adierazgarri da EIZIEn sorrera 1987an. Hirugarren fasean (1990-2000), aldiz, itzultzaileen formakuntzaren finkatzea, hala nola itzulpen-masterren sorrera, eta itzultzaileen lehen fikziozko irudikatzeak azpimarra ditzakegu. Azken fasearen (2000-2015) abiapuntua Euskal Herriko Unibertsitateko Itzulpengintza eta Interpretazio lizentziaturaren sorrera dugu. Gainera, errealitatean bezalaxe, itzultzaileak gero eta profesionalago ageri zaizkigu fikzioan.

Laburtu berri dugun sailkapena justifikatzeko eta azaltzeko, 1975 eta 2015 bitarteko literatura-historiografetan itzulpenak izandako rolari erreparatu dio Ibarluzeak. Testu itzulien aipamen hutsa ez ezik, itzulpenak testu literariotzat jo dituzten eta euskal literaturaren eremuko partetzat hartu dituzten hartu du kontuan autoreak. Itzultzaileen formakuntza ere hartu du irizpide, eta Martuteneko eskolatik gaur egungo Itzulpengintza eta Interpretazio gradura daraman bidean lagundu dio irakurleari. Arreta berezia eman nahi diogu, baina, itzultzaileen fikziozko irudikatzeei. Itzulpen-ikasketetan azken urteotan indarra hartu duen perspektiba-aldaketa da «bira fikzionala» (cf. Ma, 2018), eta ekarpen baliotsua da oso beste literatura-eremu batzuetan berriki jorratu duten bide hori (cf. Arrojo, 2018; Kripper, 2017) gurera ekartzea. Aipatutako guztiak

euskal literatura itzuliaren garapena prozesu multifaktorial gisa ulertzeko parada eman digute. Fikziozko irudikatzeak berak ere esanguratsuak dira. Ibarluzeak ekarritako lanetan ikus dezakegu itzultzaileen egoera eta gizarteak itzultzaileez duen irudia nola aldatu diren denborak aurrera egin ahala.

Euskal literatura itzuliaren eboluzioaren ondoren, eremuak betetzen dituen funtzioak landu ditu Ibarluzeak «Gogoeta bat euskal literatura itzuliaren funtzioen inguruan» kapituluan (167.-180. or.), azken hitzei (181.-184. or.) heldu aurretik. Horretarako Sapiro (2014) proposatutako hiru funtzioak hartu ditu oinarri: funtzio ideologikoa, ekonomikoa eta kulturala (167. or.). Funtzio horietako bakoitza euskal literatura itzuliaren eremuan aplikatzeaz gain, Espainiako literatura-sistematikiko duen menpekotasuna azpimarratzeko tarte hartu du autoreak, eta, horrela, lehenago aipatu bezala (39. or.), azpimarratu du eremua ez dela guztiz beregaina.

Oro har, Ibarluzearen lana goraipatu besterik ez dugu, berrogei urteko errepasoa modu trinkoan eta erraz barneratzeko moduan eskaini digulako, hainbat literatura-historiografia, iturri bibliografiko eta fikziozko lan forma egituratua emanez eta analisi argigarria eskainiz. Aurrera begira ere, esploratzeke dauden ikerlerroak anitzak direla azpimarratu du autoreak: izan euskal literatura itzuliaren 1975 aurreko aroak, izan hemendik aurrera ikusiko ditugunak. Horiez gain, literaturaz kanpoko itzulpenaren bilakaera ikertzeari ere interesgarri deritzogu, eta, esate baterako, ikus-entzunezko fikzioan itzultzaileen irudikatzei begiratzeak ere emango digu, ziur, zer hausnarturik.

ERREFERENTZIAK

- Arrojo, R. (2018). *Fictional translators: rethinking translation through literature*. Routledge.
- Bourdieu, P. (1984). The market of symbolic goods. In *The field of cultural production: essays on art and literature* (112.-114. or.). Columbia University Press.
- Even-Zohar, I. (2010). Polysystem theory (revised). In I. Even-Zohar (arg.), *Papers in culture research* (40.-50. or.) [Behin-behineko liburu elektronikoa]. Unit of Culture Research, Tel Aviv University.
- Kripper, D. (2017). Los agentes de la traducción: las ficciones del traductor como relatos de mercado. *Mutatis Mutandis: Revista Latinoamericana de Traducción*, 10(2), 174-194. <https://doi.org/10.17533/udea.mut.v10n2a07>
- Ma, D. (2018). Fictional turn in translation studies. *Advances in Social Science, Education and Humanities Research*, 182, 188-191. <https://doi.org/10.2991/iceemr-18.2018.41>
- Munday, J. (2008). *Introducing translation studies. Theories and applications* (2. arg.). Routledge.
- Sapiro, G. (2014). *La sociologie de la littérature*. Editions La Decouverte.

